



GAIZKA IROZ

Anuntxi Arana

ANTROPOLOGOA ♦

## Zezenak Errepublikan?

“BALINBADA ESPAINIAN aztura zoro makurrik, hori da zezen-kurtsetako hori. (...) Dagozila han zezen-hiltzaile guziak, hunat etorri gabe, doazila Donostiarat, edo nahi badute, Madrilerat. (...) Zer atsegina, zezen gaizoa kordokan mihia luzaturik hiltzen ikustea! Gizona hiltzen bada, hanbat gaixtoago harentzat!”

Jean Hiriart-Urrutiren hitzak dira, *Zezenak errepublikan* liburutik hartuak eta *Eskualduna* aldizkarian

1894an idatziak. Ordurako egiten ziren zezenketak Hexagonoan (lehena 1853ean Baionan), Eugenia de Montijok sustatuak, urte hartan ezkondu baitzen Napoleon III *Txikiarekin* –eta ez zion goitizena Zaldieroak asmatu, Victor Hugok baizik–.

Lehentxeago, 1850ean, Grammont legeak animalien tratu txarrak debekatu zituen arren, zezenketak ilegalki zabaldu ziren mende batez, 1951 arte, orduan legeztatu baitziren tradizioz errotuak zeuden lekuetan.

Tradizioa eta kultura usu izan dira gehiegikerien estalkia; klitori ablazioari, adibidez, indulgentzia handiaz begiratu izan zaio, baita euskal mundu abertzaleko sektore batzuetan ere. Gauzak aldatu dira, ez hainbeste pekatzaileak animaliak direnean, baina hor ere badira ihardukitzaileak eta iaz CRAC eta DDA elkarteek (Comité radicalément anti corrida eta Droits des animaux) Frantziako

Konstituzio Kontseilura jo zuten zezenketei salbuespeneko lege babesa kentzeko eskatuz, legea estatu osoan berdina izan behar dela argudiatuz.

Esan behar da zernahi zuzengabe zuritzeko erabiltzen dela berdintasun delako hori. Zenbat aldiz ez duten hartaz, euskara estekatu eta mailukatu; eta bitartean “kultur aniztasuna” goraiatzan digute animalien tortura ederresteko! Zezenketak arbuizatzeko

hobe segur tratu txarren gaitzespenean oinarritzea, lege berdintasunaren goresmenean baino.

Bego. Irailean zezenketak konstituzionalak direla epaitu du Kontseiluak, eta oilartuta ibili dira zaleak egunkari iruzkintan: ez dela barbarokeria, artea baizik, espiritualitatea, eta kontrakoak oro mindulin dekadenteak. Agian, sos eskasiak trenkatuko ahal du afera. Baionan, hasteko, erreka-jota daude zezen aldiak, Herriko Etxeak azkarki diruztatuak. Diru zama hori zergatik ez den itzulikatzen tratu txarrak jasaten dituzten emaz-

teak laguntzeko, galdetu zuen behin feminista batek Udal Behatokian: isiltasun osoa...

Eta aurten, optika denda batek zezenketei eman ohi zien sostengua eten du. Etorkizun hitsa festa monarkiko-inperialak Errepublikan. ■



*Tradizioa eta kultura usu izan dira gehiegikerien estalkia; klitori ablazioari, adibidez, indulgentzia handiaz begiratu izan zaio, baita euskal mundu abertzaleko sektore batzuetan ere*

DANI BLANCO



Amets  
Arzallus



BERTSOLARIA

## Unilateraltasuna

SINESGARRITASUN ariketa bat da; zure printzipioak zuzenak diren konbentzimendu osoa, eta horiek obratzeko ekimen eta ausardia, inoren zain egon gabe, ez legeen, ez bedekinatuko zaituen apaiz baten, denborak emanen dizu arrazoia, eta esplizituki eman nahi ez badizu, bidaliko dizu ministroren bat, adibidez laborantzakoa, bada aski aitormen. Egunkariek ETAk armak utzi zitueneko urteurrena aski letra ttipian ekarri zuten egun berean Lurramako berriak zetozen Miarrizetik. Ene irudiko gure herrian azken urteetan izan diren bi urratsik

sinesgarrienak, ezker abertzalearen barne hausnarketa eta estrategia berria, eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara, pentsatu eta obratu, koherentzia ariketa bat. Legeak aldatu ezin badira alda dezagun errealitate puska bat. Estatuak pitzatzen ari diren garaiotan, eta autodeterminazioa lor genezakeela sinesten hasi garenean, horra hor lur politikoa goldatzeko modu bat, unilateraltasuna. Inteligentzia eta ausardiaren eramanen denean praktikara beste lateraletako jendea kabalak hirian bezala gelditzen da. ■

